



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Jagoba Manterola Ruiz  
Jose M. Alzuri Vertiz  
Javier Bereau Miquelarena  
Mikel Gereka Zelaia

2019ko martxoaren 28an, 16:00ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu diren urtarrilak 23ko (ohikoa) eta martxoak 13ko (ezohikoa) bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta **aktak onartu dira**.

## **2. EMOT-A. BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Aurreko bilkuran, alegazio aurkeztutako interesdunari dokumentazio gehigarria eskatu behar zitzaionez, gaia mahaiaren gainean gelditu zen. Beharrezko dokumentazioa izanda, eta martxoak 23an zehazten zen bezala, beharreko tramite legalen ondoren Udalbatzak erabaki du:

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1. Latsagako auzoan dagoen 1. poligonoko 15. lurzatian hiri lurzoru izateko zabalkuntza lurzoruan sartzea.**

**2. Aurtitzeko auzoan dagoen 3. poligonoko 312. lurzatian hiri lurzoru izateko zabalkuntza lurzoruan sartzea.**

**3. Gainontzeko eskaerak kontuan ez izatea.**

**4. EMOT-aren hasierako erredakzioan aldaketak izan direnez, berriro ere erakustaldi publikoan jartzea hilabete batez.**

**5. Erakustaldi publikoa bai NAO-n bai egunkarian argitaratzea.**

## **3. 2. POLIGONOKO 270. ETA 533. LURZATIETAKO JABEEKIN EGINDAKO HIRIGINTZA HITZARMENA. BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Iturengo Udalak, 2019ko urtarrilaren 23an eginiko Osoko Bilkuran, onartu zuen hitzarmenaren behin behineko erredakzioa. 36. NAO-n argitaratu ondoren (2019ko otsailaren 21ean), legalki eskatzen den epeaz egon da jendaurrean erakustaldi publikoan. Kontuan izanda ez dela alegaziorik izan.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikuluan xedatutakoa betez, **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

- 1. Behin betiko onespena ematea hirigintza hitzarmenari.**
- 2. Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea alkateari.**
- 3. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.**
- 4. Erabaki hau jakinaraztea interesdunei.**

#### **4. ESKAERAK.**

1.- Alfonso José Betancourt Rauseok, ordaindu beharreko hirigintza kontsultaren inguruan eskaera aurkeztu du, hasia den apremioa bertan behera uzteko. Eskatzaileak, kontsultarengatik kobratuko zitzaiola ez ziotela abisatu alegatu du. Hala ere, aurreko idazkariak esan duenez eskatzailea abisatua zegoela, **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

- 1.- Eskaera ez onartzea, eta kobratzeko prozesuarekin aurrera jarraitzea.**

2.- Saharaztan elkarteak egindako diru-laguntza eskaera. Eskaera aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

- 1.- Eskaera onartzea eta 300 euroko diru-laguntza ematea.**

3.- Herri Urratsek egindako diru-laguntza eskaera. Eskaera aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

- 1.- Laguntzarik ez ematea, joaldunak joaten baitira egunean bertan.**



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

4.- Nafarroako Ondarearen Plataformak eskaturiko ekarpena. Eskaera aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1.- Ekarpenik ez egitea.**

5.- Xabier Alzuri Arretxeak, zain irauliak eta arriskuan dauden zuhaitzak aprobetxatzeko egin duen eskaera. Eskaera aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1.-Eskaera onartzea.**

6.- Pedro Jose Altxuk zain irauliak aprobetxatzeko egin duen eskaera. Eskaera aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1.-Eskaera onartzea.**

7.- Rafael Unchalo Odriozolak idorturik edo eroriak dauden zuhaitzak aprobetxatzeko egin duen eskaera. Eskaera aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1.- Eskaera onartzea.**

8.- Isidro Bazterrika Mutuberriak zain irauliak aprobetxatzeko egin duen eskaera. Eskaera aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1.- Eskaera onartzea.**

9.- Iturengo dantza taldeak, materiala berritzeko egin duen diru-laguntza eskaera. Eskaera aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1.- Eskaera onartzea eta 100 euroko diru-laguntza ematea.**

10.- Iturengo festetan, postuak jartzeko egin diren hainbat eskaera. Eskaerak aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1.- Eskaerak mahai gainean uztea festak hurbiltzen direnerako.**

11.- Kanpo Santu berrian M<sup>a</sup> Esther Mindeguia Echeverriak, ur iturria jartzeko egin duen eskaera. Eskaerak aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1.-Eskaera onartzea eta behar diren tramiteak aurrera eramatea iturria kanpo santu berrian jartzeko**

12.- Jose Iparragirre Altamira labaderoa konpontzeko eskaera. **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1.-Egoera ez dela txarra eta aski dela garbitzearekin.**

13.- Iñaki Ixidor Manterola Ruizek aldameneko etxean egin den tximiniaren inguruan egin duen jakinarazpena eta eskaera. Eskaerak aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

**Alde 5**  
**Abstentzio 2**

**1.- Aldameneko etxeko jabeari egoera jakinaraztea.**

## **5. MOZIOAK.**

Mikel Gereka Zinegotziak, eskolaren eraikinaren inguruan, Nafar Gobernuko Hezkuntza Departamentuko ei bilera bat eskatzea, prozesuak izan dituen gora beherak eztabaidatu eta tramitearen azkeneko balorazio bat egiteko. Udalbatzak erabaki du:



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

## **Alde 5** **Abstentzio 2**

**1.- Proposatutako mozioa onartzea eta beraz, beharrezkoak diren tramiteak aurrera eramatea bilera antolatu eta ospatzeko.**

## **6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: 2019/02 ebazpenetik 2019/12 ebazpenera.

Gainera, Udalbatzak hurrengo ebazpenak berretsi egin ditu. 2018/79, 2018/80 eta 2018/81. ebazpenak hain zuzen ere.

## **7. INFORMAZIOAK.**

**Ondoren, agiri hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:** Toki administrazioak Eskualdeen eraketari begira hautetsiei beste hautetsiekin batzeko egin behar duten eskaeraren berri ematen du. Foresna zurgaiaren Zuzendaritzaren bilkura (2018ko apirilaren 1a). Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Sailak emandako erretzeko baimenak (Igor Mindegua). Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Sailak bizilagun bati jarritako isuna. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Sailak mandatu duen jardueraren titularitate aldaketa (SC ARAMBURU ALDAVE ANGEL MARIA, MICHELENA AYOROA VIRGINIA). Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Sailak emandako oihan aprobetxamenduak (Jose Martin Saldias Alchu eta Marta Legazcue Goñi). Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Sailari eskaturiko oihan aprobetxamenduak (Jose Mari Alzuri Vertiz eta Eustaquio Bazterrica Mutuberria) Marta Legazcue Goñi, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Sailako Ingurugiro Zerbitzutik jasotako diru laguntzak, baso jardueretarako. Komarka atlantikotik pinu insignisa botatzeko eta eremuetan birlandaketak burutzeko proiektu poltsaren eraketa. Herri eremuak berreskuratzeko La Caixak emandako diru laguntza. Kantauriko Ur-Konfederazioak aurrera eramane behar duen Plan Hidrologikoen Berrikuspenean alegazio edo ekarpenik egiteko irekitzen den erakustaldi publikoa. Kantauriko Ur-Konfederazioak 2019ko urtarrilaren 17an emandako ebazpena, Simón María Ayoroa Fagoagari polizia eremuan tresnerien biltegia eraikitze baimena ematen diona (A/31/03703). Kantauriko Ur-Konfederazioak 2019ko martxoaren 7an emandako jakinarazpena, Jose María Alzuri Vertiz 2019/02/27 an 10 zuhaitz mozteko ibaiaren polizia eremuan baimena eskuratzeko egindako eskaera jaso izanarena (A/31/03743). Nafar gobernuko ingurugiro osasuneko zerbitzutik egindako uraren kontrolen emaitzak. Jabetzaren erregistroa aldamenekoak garen heinean egiten digun inskripzioaren jakinarazpena (798, 803 eta 804). Turismo etxebizitzaren erregistroan emandako altak (Casa Laspidea). Turismo etxebizitzaren erregistroan emandako bajak (Casa Barbenea). NUKF-ek Landa Garapen Lankidetzarako Toki Funtzaren edizio berrirako gonbidapena.

## **8. GALDE-ESKEAK.**

Ez da galderarik egin.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Eta bertzerik ezean, 17:25ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.